

JARDUERAK

Gure jatetxean jarduera batzuk guk egingo ditugu eta beste batzuk, berriz, beste enpresa batzuen esku utziko ditugu. Kanpoko enpresetan hain zuzen ere.

Ekoizpenaren kasuan, hornitzaileei erosiko dizkiegu lehengaiak. Gehienbat barazkiak eta frutak, produktu hauek izango baitira gure jatetxearen oinarria. Ondoren, produktuak ekoiztu eta entregatuko ditugu guk, jatetxean bertan ekoitziko ditugu produktuak bezeroen eskaria kontuan hartuz. Entregatzerakoan, “just eat” zerbitzura gure enpresako langileak bidaliko ditu eskaria etxez etxe betetzeko.

Hainbat motatako arazoak sor daitezke. Adibidez, arazo ekonomikoa, sarrerak kostuak baino txikiagoak direnean. Horretarako gaian espezializatuta dagoen enpresa batekin lan egingo dugu, kontabilitate kontuetan trebea dena.

Enpresa garatzea nahi dugunez, web gune propio bat sortu nahiko genuke negozioa ahalik eta pertsona gehienetara heltzeko. Horregatik, teknologietan profesionala den enpresa edo pertsonaren bat kontratatzea kontuan izango dugu, web-a diseinatzeko orduan eta sare sozialen jarduerak ere kontrolatzeko helburua izateko. Azkenean, sare sozialen bidez gure enpresa ezaguna izatea dugu helburu, gaur egun oso modan daudelako prestatuko ditugun platerak eta eskainiko ditugun jarduerak. Aipatu dugun moduan, “influencers” direlakoak daukagu pentsatuta bitartekari moduan izatea bezeroak lortzeko.

Laburpen moduan, internet izango da nabarmena gure enpresan.

Gure enpresako ordutegi eta ekintzak honako hauek izango dira: gosariak, hamaiketakoak, bazkariak eta meriendak eskeiniko ditugu, baina, egia esan, edozein momentutan eskuratu ahal izango dira gure produktuak, bai gosarian sandwich bat hartzea eta ogurt edo fruta hartzea ere. Horregatik, 8:00-22:00 ordutegia izango dugu. Hori betetzeko langileren bat 8:00ak baino lehenago hasi beharko da lanean dena martxan jartzen, janariren bat prestatzen... Langileek txandak izango dituzte eta deskantsuak egongo dira baita ere. Baina, gogoratu beharra dago ez dela jatetxe normal bat, hau da, janari azkarra eskeintzen dugu eta mahaiak egon arren ez da zerbitzaririk mahai bakoitzera joango.